

BALOREZKO PROPOSAMENA

Produktu hau eskaintzearen helburua, janaria eskuratzeko arazoak dauzkaten herrialdeek, haien kabuz janaria ekoiztearena da. Honetarako, produktua doan emango zaie ONG -ei eta haiek kaxaren garraioa, hau da, bezeroengana iristea kudeatuko dute.

Produktu hau denentzat eskuragarria denez, milaka pertsonen bizia erraztea bideraturik dago. Izan ere, gaur egun hainbat herrialdetan gosetea arazo larri bat da eta beharrezko tresnak eskainiz aldaketa eraginkor bat lortu daiteke, autosufiziente izatean baitago gakoa.

Honez gain, produktua erabiltzea erraza da. Automatizatutako kaxan, barazki nahiz fruituen kimuak kontserbatu egiten dira ureztatze sistema baten bidez. Beraz, landatzeko prest egongo lirarteke.